

## ***Euskara, katalan eta galegozko ikus-entzunezkoaren alde***

### **[EUSKERA]**

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorrak, idatzita dagoen bezala onartuz gero, ez du eragin handirik izango gaztelania ez diren hizkuntza ofizialen ikus-entzunezko berdintasuna erdiesteko. 2018/1808 Europako zuzentarauaren transposizioaren ondoriozko legearen aldaketa aukera gisa erabili behar da gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialen ezarpenean dauden desberdintasunak ezabatzeko. Halaber, ikus-entzunezko eduki guztietan, jatorrizko bertsioan, bikoiztuta edo azpigituluekin, bai ere audiodeskribapenetan eta interfazeetan ere, presentzia duina eta berdintasunezkoa izan dadin zaintzeko baliatu beharko litzateke. Jarrera hori galiziera, euskara eta katalana duten parlamentuek babesten dute.

Estatu espainiarreko estaturik gabeko nazioek oraingo eta etorkizuneko ikus-entzunezkoetan gure hizkuntzen presentzia ziurtatzeko unea da, bai telebista linealean, bai eskariaren araberako eduki-plataformetan, egoitza edonon dutela ere. Bestalde, argitu behar da *autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetako bat* delako kontzeptua jasotzen denean, berezko hizkuntzei buruz ari dela.

Horregatik, Gobernuari eta gure lurraldeetako alderdiei -legea onartzeko beharrezkoak direnei- honako gai hauetan amore ez emateko eskatzen diegu:

- Legeak zehapen-araudi argia eta zehatza izan dezala, saihesteko plataformek eta operadoreek nahiago izatea isuna jaso legea bete baino. Gainera, atek ireki behar dizkie hizkuntza ofizialak dituzten legebiltzar autonomikoei gaiari buruzko beren legeak gara ditzaten, dagokien erregelamendu osagarriaren bidez.
- Plataforma bakoitzaren katalogoan, %6 katalanez, euskaraz eta galizieraz egon dadila, bai eta egoitza estatutik kanpo dutenetan ere. Gainera, ehuneko horren erdiak urtebete baino gutxiagoko antzinatasuna izan dezala.
- Plataforma bakoitzaren katalogoan, katalanez, euskaraz edo galizieraz bikoizketa duten produktu guztiak eskuragarri egon daitezela sisteman. Estatuko hizkuntzan bikoizketa eta azpigituluak txertatzen dituzten ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileek aldi berean sar ditzatela hizkuntza koofizialak. Aldi baterako laguntzak eta pizgarriak ezar daitezela. Plataforma batek bere produktuetako bat administrazioak bikoizteari uko egin ezin diezaiola.
- Estatuan jarduten duten, baina egoitza beste herrialde batean duten, plataformek Europako obretako erosketa- edo inbertsio-kuota estatuko hizkuntza ofizialetan bete dezatela (finantzazio aurreratua), zuzentarauak zehazten duen bezala, Kuota hori murrizteko aukera eman dakiela, beren produktuen bikoizketaren truke.

*“Estatu kide bakoitzaren finantza-betebeharren eta kultura-politiken arteko lotura zuzena dela-eta, Zuzentarau honek zehazten duenez, estatu kide bati aukera eman dakiola era berean betebehar horiek beste estatu kide batean kokatutako komunikazio-zerbitzuen emaileei ezartzeko, baldin eta beren lurraldera jotzen badute.”*

- Finantzazio-kuota aurreratua ezar dadila hizkuntza koofizialetan egindako ekoizpenetarako.
- Plataformek katalanezko, euskarazko eta galizierazko telesailak ekoizteko pizgarriak izan ditzaten, filmak ez ezik, ordukako kuota ere kontabilizatu dezala legeak: serie bat ezin da film gisa zenbatu. Ezin bada, aldagai bat sar dadila telesailei dagokienez sor daitekeen arrisku hori zuzentzeko.
- Erabiltzailea geolokalizatuz, autonomia erkidego bakoitzeko berezko hizkuntzan eskuragarri dauden lan europarrek lehentasunezko tokia izan dezatela orri nagusian.
- Katalanezko, euskarazko eta galizierazko audiodeskribapen interfazeak sar daitezela, eta behin hizkuntza aukeratuta, audio- eta azpтитulu-aukera gisa gorde dadila produktu guztietan.
- Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioak bere eduki guztiak katalanera, euskarara eta galizierara bikoiztutako aukerarekin zabaltzeko betebeharra izan dezala, bereziki haur eta gazteentzako berariazko kanalen programazioan, bai eta bere webguneen eta aplikazioen edukietan ere.

## ***Por un audiovisual en catalán, euskera i gallego***

### **[CASTELLANO]**

La Ley General de Comunicación Audiovisual, de aprobarse tal como está redactada, tendrá muy poco impacto en el avance hacia la igualdad audiovisual de las lenguas oficiales distintas al español. La modificación de la ley a raíz de la transposición de la directiva europea 2018/1808 debe utilizarse como una oportunidad para eliminar las diferencias en el tratamiento de idiomas oficiales distintos del español y velar por su presencia digna e igualitaria en todos los contenidos audiovisuales en versión original, doblada o subtitulada, y también en audiodescripciones e interfaces, siendo esta una posición respaldada por los parlamentos con lengua gallega, euskera y catalana. Es el momento de que las naciones sin estado del estado español aseguren su presencia en el audiovisual del presente y del futuro, tanto en la televisión lineal como en las plataformas de contenidos bajo demanda, independientemente de donde tengan la sede. Por otro lado, es necesario aclarar que cuando recoge el concepto *alguna de las lenguas oficiales de las comunidades autónomas*, se hace referencia a las lenguas propias.

Es por esto que exigimos al Gobierno y a los partidos de nuestras naciones -que son necesarios para aprobar la ley- que no se ceda en ninguna de las siguientes cuestiones:

- La ley tiene que incluir un reglamento sancionador claro y conciso que evite que las plataformas y los operadores prefieran pagar la multa a cumplir la ley. Además, debe abrir la puerta a que los parlamentos autonómicos con lenguas oficiales desarrollen sus propias leyes sobre la materia con su correspondiente reglamento complementario.
- Dentro del catálogo de cada una de las plataformas, un 6% tiene que ser obra producida en catalán, euskera y gallego. También las que tienen la sede fuera del estado. Además, la mitad de ese porcentaje tiene que ser obra de menos de un año de antigüedad.
- Dentro del catálogo de cada una de las plataformas, todos los productos que tengan un doblaje en catalán, euskera o gallego tiene que estar disponibles en el sistema. Los prestadores de Servicio de comunicación audiovisual que incorporen doblaje y subtítulos en la lengua del Estado deberán incorporar simultáneamente las lenguas propias cooficiales. Transitoriamente se establecerán ayudas e incentivos. Ninguna plataforma puede negarse bajo ningún concepto a que la administración doble alguno de sus productos.
- Establecer una cuota de financiación anticipada para producciones en lenguas propias cooficiales.
- Las plataformas que operan en el estado, pero tienen su sede en otro país, tienen también que cumplir la cuota de compra o inversión en obra europea en lenguas oficiales del estado como explicita la directiva (financiación anticipada), y darles la posibilidad de rebajar esa cuota a cambio del doblaje de sus productos.

*"La presente Directiva precisa que, dado el vínculo directo existente entre las obligaciones financieras y las políticas culturales de cada Estado miembro,*

*se permite a un Estado miembro imponer igualmente tales obligaciones a los prestadores de servicios de comunicación establecidos en otro Estado miembro que se dirijan a su territorio."*

- Con el fin de que las plataformas tengan incentivos para producir series en catalán, euskera y gallego, y no solamente películas, la ley tiene que contabilizar la cuota por horas: una serie no puede computar como una película. A no ser posible, se tiene que introducir una variable para subsanar este riesgo ante las series.
- Prominencia en la página principal de las obras europeas disponibles en la lengua propia de cada comunidad autónoma mediante la geolocalización del usuario.
- Inclusión de interfaz en catalán, euskera y gallego, y que una vez elegido el idioma, este quede guardado como opción de audio, audiodescripciones y subtitulación por defecto en todos los productos.
- Obligatoriedad de que la Corporación de Radio y Televisión Española difunda todos sus contenidos con opción doblada al catalán, euskera y gallego, en particular en la programación del canal específico infantil y juvenil, y los contenidos de sus webs y aplicaciones.